

EDITORIALA

Txikizioa

Espainiako presidentek, Rajoyk, kongresuan iragarri berri dituen erabakiek, ezuste handia izan gabe, egonezina eta haserrea ere eragin dute. Planteaturiko neurri andanak ondo asko betetzera datoz Europako troikak agindutakoa, alegia, doikuntza bidea besterik ez dagoela ezarritako defizitarren mailak betearazteko eta lehenetasuna den zorraren ordainketa konplitzeko. Nor zen duela gutxi esan zuena Europaren *mailegua* baldintzarik gabe etorriko zela eta gainera baldintza oso onetan? Bada eskerrak baldintzarik ez duela jarri, bestela, akabo. Ezin dugu ahaztu espainiar bankari, gobernuaren bermeaz, bideratuko zaion dirutza itzela dagoela sakoneko arrazoian. Aurreneko ordainketa egin ahal izateko egundoko presa dago, hain da larria bankaren egoera eta. Horregatik *mailegua* eman ahal izateko Europak baldintza zorrotzak ezarri ditu. Zorroztasun horretan neurri multzoa itzela da, arlo guztietan larriki eragingo diguna.

Gezurtero galantak dira. Aurreko presidentek eta oraingoak ere, bere goi agintariekin batera, gezurra darabilte denean. Bat esan, kontrakoa egin. Hautes-programa buruz behera jarri eta agindutakoa justu aurkakoa egin. Bai, gezurra darabilte erantzun soziala lokartu nahian eta *merkatuak* kontent izateko, nahiz eta merkatuak ez diren asetzen, egunoro frogatzen dugun moduan. Jakin badakite bide honek ez gaituela krisitik aterako baizik eta horretan sakonduko dutela. Neurriok, ez bairik gabe, pobreziara eramango gaituzte herritar asko eta asko, beste gutxi batzuk gehiago aberastuko direlarik.

Guzti honen aurrean, nor dago prest politika letra larriz deklinatzeke? Euskal eremuan gobernu ardurak instituzio ezberdinetan dituztenek bat egingo dute neurriekin? Norbait dago prest krisi politikoa irekitzeko abagune gordin honetan? Norbait dago herritarren interesak defendatzeko sinesgarritasunez? Hori da politikari orain exijitu behar zaiona. Erretrata dadila bakoitza. Guk, gure konpromisoari helduz, mobilizatzaera goaz.

ELA insta a las Administraciones de Hego Euskal Herria a no aplicar estas medidas y a abrir una crisis política en la que lo social juegue un papel protagonista

RESPUESTA PROPORCIONAL A LOS RECORTES

El secretario general de ELA, Adolfo Muñoz *Txiki*, ha calificado de "ataque brutal y salvaje a la ciudadanía" la última batería de recortes anunciada el 11 de junio por el presidente del gobierno español, Mariano Rajoy, al tiempo que ha adelantado que el sindicato está trabajando con otras organizaciones sindicales y sociales la respuesta a las mismas. "Estamos preparando una movilización proporcional a la agresión".

Al analizar la coyuntura en la que nos encontramos, el secretario general de ELA ha insistido en el hecho de que la ciudadanía está sufriendo una manipulación como jamás se ha visto en la historia reciente. "Todas las reformas que se han hecho en los últimos tiempos, cuyo objetivo –decían– era crear empleo han fracasado y, sin embargo, continúan e intensifican esas políticas. Usan la mentira y manejan los tiempos para engañar a la opinión pública y disfrazar lo que está ocurriendo, que es el trasvase de dinero público a manos privadas, a esa cuadrilla de sinvergüenzas que controlan la economía española", ha denunciado con dureza.

MÁS POBRES

El secretario general de ELA tampoco ha obviado el hecho de que Rajoy justificara los nuevos recortes para asegurar el cumplimiento del ajuste presupuestario y lo comprometido en el último Consejo Europeo. En este sentido, ha destacado que "Europa es un fracaso. Nos opusimos al Tratado por su contenido antisocial y el tiempo nos ha dado la razón. Europa está controlada por los ultraliberales, que se están dedicando a convertir deuda privada en deuda pública. No olvidemos la reforma constitucional de hace un año para convertir en prioritario el pago de la deuda, ni la aprobación del llamado Pacto de Estabilidad el pasado 21 de junio en el Congreso de los Diputados, con el voto favorable de PP, PSOE, PNV o CIU". "El círculo se cierra –ha añadido– utilizando leyes básicas para obligar a las comunidades autónomas a ejecutar sus mismas políticas. Lo hizo el PSOE y lo hace el PP", ha denunciado.



De izquierda a derecha Adolfo Muñoz Txiki, Mikel Noval e Idoia Intxaurbe, en la rueda de prensa que ofreció ELA el 12 de julio para valorar los nuevos recortes del PP.

En este sentido, el secretario general de ELA ha vuelto a exigir a la clase política vasca que "si pensáis distinto no cumpláis lo dictado por Rajoy", al tiempo que le ha instado a abrir una crisis política real en la que lo social juegue un papel protagonista. "No nos valen declaraciones cara a la galería. Si no están de acuerdo no hay otra opción que el incumplimiento", afirmó con rotundidad. Asimismo, en relación a las próximas elecciones en la CAPV, *Txiki* ha exigido a las fuerzas políticas vascas que expliquen a la sociedad qué medidas y que políticas van a llevar a cabo para afrontar la situación actual.

LA MOVILIZACIÓN ES LA RESPUESTA

El máximo responsable de ELA ha insistido una y otra vez en que la situación es de extrema gravedad –"se han encendido todas las alarmas"– y que las medidas anunciadas por

Sigue en la página 2

MOBILIZATU GAITEZEN! DENOK KALERA!

ELAk –azken urteetan bestelako politika sozialak lortzeko borrokan elkarlanean diharduen gainontzeko sindikatu eta gizarte eragileekin batera– hainbat protesta ekintza iragarri ditu aste honetarako. Protesta ekintza hauek zerrenda luze baten hasiera besterik ez dira. Deialdi hauek babesten dituzten erakundeek uztailaren 13an eskainitako prentsaurrekoan azpimarratu zuten, "murrizketa hauen kontra eta bestelako politikak lortzeko bidean gure konfiantza osoa berresten dugu gizarte-mobilizazioan. Hori dela-eta, eta lehendabiziko urrats baten gisan, honako mobilizazioak deitzen ditugu".

- Uztailaren 17an, asteartea, 11:00tan, Lanbideko eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuko bulegoen aurrean.

- Uztailaren 18an, asteazkena, 19:00tan, kazerolada-kontzentrazioa zaratatsuak eskualdetako ohiko lekuetan.





Rajoy van a suponer un incremento galopante del paro y la pobreza. Por eso, ha llamado a la movilización social para conseguir un cambio de políticas, ya que las actuales se hacen al dictado del capital, de la Banca y de la patronal. "El gobierno hace lo que le dice la patronal. Hay lucha de clases, claro que la hay, y la están ganando ellos", ha advertido.

SAQUEO CON LA CONNIVENCIA DE LA CLASE POLÍTICA

En su valoración, el responsable de política social de ELA, Mikel Noval, ha destacado que los recortes que se están aplicando en el estado español suponen un empobrecimiento generalizado de la población. "Están agravando la recesión, aumentando el desempleo, recor-

tando la protección social y haciendo que cada vez más gente tenga problemas para llegar a fin de mes. Aumentar el IVA, recortar las prestaciones sociales o recortar los salarios en el sector público son políticas injustas que hacen que la crisis la paguen quienes no tienen responsabilidad en la misma", ha asegurado.

"Para ELA, es inadmisibile que se dé 100.000 millones de euros a la Banca y que, a la vez, se recorten las prestaciones por desempleo, las pensiones y los salarios. También es inaceptable que se bajen las cotizaciones sociales a las empresas y se suba el IVA a la ciudadanía. Es evidente que se está realizando un enorme trasvase de renta para favorecer a una minoría de la población. Es un saqueo que cuenta con la connivencia del poder político, económico y financiero", ha denunciado.

Noval ha comparado lo que ocurre en el estado español con lo sucedido en Grecia, Portugal o Irlanda, incluyendo la intervención de la economía. "El resul-

tado de las políticas que se aplican en todos estos lugares es nefasto", ha advertido. "Sólo favorecen a quienes se enriquecen a costa de los recortes salariales, sociales y las privatizaciones. Quienes gobiernan deberían explicar por qué trabajan a favor de una minoría poderosa", ha exigido.

El responsable de política social ha insistido en que hay políticas alternativas que, de aplicarse, supondrían una salida justa a la crisis. "La alternativa que defiende ELA consiste en la no aplicación de los recortes y un cambio radical de las políticas fiscales y sociales. Estas políticas suponen confrontar con la actual lógica neoliberal y capitalista, y con el poder económico y financiero".

Coherente con esta línea, Noval ha concluido su valoración de los últimos recortes anunciados por Rajoy asegurando que el rechazo social y la movilización suponen la única vía para cambiar las políticas, por lo que ha animado a la ciudadanía a tomar la calle y responder a los ataques antisociales.

ELAren balorazioa Espainiako Gobernuburuak uztailaren 11n Diputatuen Kongresuan iragarritako neurrien inguruan

MURRIZKETA BERRI HAUEK TXIROTZE OROKORTU BAT EKARRIKO DUTE

2012ko uztailaren 11n Mariano Rajoy Espainiako gobernuburuak Diputatuen Kongresuan agertu zen berehalako neurri batzuen berri emateko; neurrien xedea, aurrekontuen doikuntza egin eta azken Europar Kontseiluan hartutako erabakiak betetzea.

Izatez gobernuak joan den maiatzaren 30eko Europar Kontseiluan erabakitako Gomendioak bere egin ditu. Gobernuak behin eta berriz kontrakoa esanagatik ere, neurriak hartzea euroaldeak erabakitako baldintza bat da, Espainiak 100.000 milioi euroko maila gura jaso dezan (interesekin itzuli beharrekoa), gero bankuei emango zaien dirua.

Neurrien mamia funtzio publikoaren goitik behar-ko aldaketa da (administrazioen egiturari eragingo dieten neurriekin), aurrekontuetan gizarte-prestazioetan ondorioak izango dituzten erabakiak (langabezia, pensioak, etab.), diru-sarrerei buruzko beste erabaki batzuk, zeharkako zergak gehitze aldera (BEZ eta zeharkako beste zergak), eta erreforma estrukturalen egutegia azkartzea.

I.- HERRI-ADMINISTRATIOEN ERREFORMA

Udal desberdinetako alkate eta zinegotzien ordain-sariak berdindu eta argitaratu egingo dira; udalaren ezaugarrien arabera baremoak ezarriko dituzte honetarako. Halaber, zinegotzi kopurua %30 inguru gutxituko da, eta tokiko enpresa publikoak ere murriztu egingo dituzte (erabat desagerraraztea ere aipatu da).

Gobernuak funtzio publikoa goitik behera aldatuko du. Rajoyren arabera, soldata eta ordainsariak dira aurrekontuetako atalrik handienetakoa, eta horregatik orain arteko neurriez gainera (esaterako, lanaldia luzatzea edota langileen irteera medio sortzen diren hutsuneak ez osatzea, 2012ko Aurrekontuan erabakitakoak), beste batzuk hartuko dituzte. Aipatutako zenbait adibide (ziurrenik neurri gehiago etorriko dira):

- 2012an estatu-, autonomia- eta toki-administratzaioetako langile eta goi-karguei bigarren aparteko

paga ez ordaintzea; ez dute zehaztu 2013tik aurrera aparteko ordainsariekin zer gertatuko den.

- Erabilera libreko egun kopurua gutxitzea.
- Aldi baterako ezintasun egoerako baldintzak gainerako langileek dituztenekin berdintzea.
- Enplegatu publikoen mugikortasuna erraztea.
- Enpresa eta fundazio publikoen kopurua zeharo murriztea.
- Liberatu sindikalen kopurua legeak ezarritako mailara ekartzea.

II.- AURREKONTUETAKO NEURRIAK

a) Gastuei dagokienez

- Langabezia prestazioetan, prestazioa jasotzen hasten direnei seigarren hiletik aurrera kotizazio-oinarriaren %60a ordez %50a ordainduko zaie.
- Pentsioetan murrizketa gehiago izango dira: iraunkortasun-faktorearen aplikazioa aurreratu nahi du gobernuak (ez du zehaztu erretiro adinaz, pentsioaren zenbatekoaz edo pentsioa kalkulatzeko aintzat hartzen den urte kopuruaz ari den...) eta erretiro aurreratuaren baldintzak aldatu.

- Menpekotasun sistemak eragindako gastua murriztu, horretarako baremoa eta prestazio ekonomikoak aldatuko direlarik.

- Enpleguari dagokionez, egun kontratatzeke ematen diren hobari gehienak kenduko dira.

- Gastuetan, berriz, 2012ko aurrekontuan beste murrizketa batzuk egingo dituzte ministerioen hainbat sailetan, 600 milioi euro inguru. Urtea amaierako aurrekontu-kredituak murriztu egingo dira diru-laguntza, gastu arrunt eta transferentziatarako.

- 2013ko aurrekontuetan, aurtengo jaitzieraz gainera, beste %20 murriztuko dira alderdi politiko, sindikatu eta enpresario-elkarteentzako diru-laguntzak.

b) Diru-sarrerei dagozkien aurrekontu neurriak

Uztailaren 13an Ministroen Kontseiluak honako erabakiak hartuko ditu diru-sarreren inguruan:

- BEZaren tasa orokorra hiru puntu gehituko du, egingo %18tik %21era. Tasa murriztua %8tik %10era igoko da, eta produkturik beharrezkoen gaineko tasa supermurriztua bere horretan utziko dute, %4an.
- Gizarte-kotizazioak 2013an puntu bete jaitziko dira, eta beste puntu bat gehiago 2014an.
- Tabakoaren gaineko zerga igo egingo da.
- Sozietateen Zerga zatika ordaintzeko modua aldatu egingo da.
- 2013tik aurrera erosle berriek ez dute etxebizitza-kenkaririk izango.
- Oro har, diru-sarrerak eta gastu murrizketa aintzat hartuta, aurten hasi eta 2015eraino 65.000 milioi euro izango dira.

III.- ERREFORMA ESTRUKTURALAK

Epe laburrean besteak beste honako erreformak egingo dira:

- Energia-sektorearen erreforman beste fase bati ekingo zaio, zerga berriak ezarriko direlarik.
- Merkatuaren batasuna bermatzeko programa. Enpresen esparru arautzailean erreforma estrukturala egingo da. Herri-administratioek emandako kreditazio eta ziurtagirien eraginak parekatu egingo dira.
- Zerbitzu-sektorea erreformatu eta liberalizatu egingo da. Banaketa komertzialean hasitako erreformez gainera ordutegiak malguagotu egin nahi dituzte. Halaber, trenbide, portu eta aireportu bidez egiten den garraioaren zerbitzuak liberalizatu egingo dira, eta zenbait kasutan, pribatizatu.

ELA se reafirma en que la confrontación es la única vía para parar a una patronal que intenta dinamitar nuestras condiciones laborales y de vida

MÁS Y MEJOR ORGANIZACIÓN PARA PARAR LA REFORMA EN LAS EMPRESAS



Los/as principales responsables de federaciones y el secretario nacional de negociación colectiva, Joseba Villarreal, han analizado el impacto que las reformas laboral y de negociación colectiva –aprobada de manera definitiva en el Congreso de los diputados el 28 de junio– están teniendo en nuestro mercado laboral. Villarreal destaca que la negociación colectiva, tal y como la conocíamos hasta ahora, ha pasado a la historia. A continuación, las principales conclusiones de este análisis.

LA REFORMA DE LA REFORMA ENDURECE EL TEXTO EN VIGOR

Como ya adelantamos, el trámite parlamentario ha empeorado el Decreto aprobado por el Gobierno de Rajoy el 12 de febrero del 2012; ésa era la intención del gobierno y la demanda de una patronal insaciable. Para ello, han contado con la inestimable colaboración de UPN, Foro Asturias y CIU.

La Reforma de la Negociación Colectiva de José Luis Rodríguez Zapatero de

junio de 2011 dio los primeros pasos hacia la centralización de la NC, posibilitando que sea en Madrid donde se decida qué se puede negociar y dónde. En este sentido, CCOO, UGT y la patronal se han encargado de vaciar de contenidos los principales convenios sectoriales provinciales: desde junio de 2011 han firmado numerosos convenios estatales –Construcción, Derivados del Cemento, Seguridad Privada, Comercio, Metal, Residencias, Telemarketing, Conservas, etc.– que, en diferente medida, se apropian de la mayoría de las materias a negociar y determinan, en cualquier caso, qué se puede negociar y dónde, siempre a favor del ámbito estatal y en contra del ámbito provincial.

El 25 de enero de 2012, CCOO, UGT, CEPYME y CEOE firmaron un nuevo Acuerdo Estatal para la Negociación Colectiva (AENC), donde marcan los compromisos de las organizaciones firmantes respecto a los contenidos de la Negociación Colectiva. Tal como denunciábamos en su día, ese acuerdo incluía elementos muy regresivos e insuficientes. Una vez más, las organizaciones

sindicales firmantes daban muestra de su renuncia a la defensa de la clase trabajadora y sus condiciones de vida.

PRIORIDAD DEL CONVENIO DE EMPRESA. LIMITACIÓN DE LA ULTRA ACTIVIDAD A UN AÑO

El golpe definitivo lo da la Reforma de la Negociación Colectiva recientemente aprobada por el Congreso que, entre otros cambios regresivos, determina la prioridad aplicativa del convenio de empresa en algunas materias como el salario, convirtiendo así los convenios provinciales sectoriales –hasta hoy base de la negociación colectiva– en recomendaciones que ni obligan ni marcan ningún mínimo, es decir, que a partir de ahora en la empresa se puede negociar cualquier cosa y en cualquier momento.

El Gobierno regala también a la patronal una de sus viejas aspiraciones, la limitación de la ultraactividad, que queda en un año. Es decir, todos los contenidos recogidos en los convenios dejan de estar en vigor al año de su vencimiento. Por si esto fuera poco, el Gobierno de Rajoy otorga a la patronal más poder, facilitando la posibilidad de descolgarse de los convenios inaplicando los mismos y la posibilidad de modificar unilateralmente las condiciones de trabajo de los trabajadores y trabajadoras mediante la Modificación Sustancial de las Condiciones de Trabajo (MSCT).

Desde la entrada en vigor del Decreto ley en febrero, la patronal vasca, igual que la española, no ha dudado en aplicar todo lo que ha podido, siendo la MSCT la opción más utilizada para conseguir el objetivo de reducir los salarios y convertir el mercado de trabajo en una jungla en la que los trabajadores no son sino mercancía; eso sí, mercancía cada vez más barata.

LA ALTERNATIVA DE ELA ES ORGANIZARSE PARA LA CONFRONTACIÓN

Ante esto, en ELA pensamos que no vale seguir mirando hacia atrás ni plantear ficciones que la ley no permite; ni blindar ámbitos de Negociación que no se pueden blindar (mucho menos con aquellos que priorizan e impulsan la negociación estatal); ni demandar procesos de negociación con la patronal, que lejos de mostrar voluntad para cosas diferentes reafirma en cada intervención pública y en todas las mesas de negociación abiertas su nula voluntad de esquivar la reforma (es más, reafirma su apoyo y la utilidad de la misma); ni ofrecer contenidos por encima de los acordados en el AENC de enero del 2012, suscrito por CEOE, CEPYME, UGT y CCOO.

Por ello, ELA se compromete a organizar mejor a trabajadoras y trabajadores para impedir que la reforma entre por la puerta de las empresas y a buscar alternativas que sigan posibilitando la defensa colectiva; es imprescindible llegar a los trabajadores y trabajadoras contando lo que de verdad supone esta reforma; va a resultar determinante la capacidad de estar más presentes en las empresas. La sindicalización será la que determine la realidad de cada empresa o sector.

En definitiva, nuestra capacidad de organización será el único límite que se van a encontrar las empresas en su intento de dinamitar nuestras condiciones laborales y de vida. Mejorar esa capacidad es nuestro compromiso, y como siempre, estamos abiertos a compartir camino y pelea con todos aquellos que compartan diagnóstico, estrategia y objetivos.

LABURREAN / BREVES

● ELA se felicita por la sentencia del Tribunal Europeo de Derechos Humanos

ELA se felicita por la sentencia del Tribunal Europeo de Derechos Humanos por la cual se establece que la denominada *doctrina Parot* no cumple con los principios del Convenio Europeo de Derechos Humanos, al añadir de manera retroactiva una condena más dura que la que fue aplicada a las personas que fueron juzgadas.

Esta doctrina respondió al impulso político del pacto antiterrorista suscrito por PP y PSOE, y fue legitimada por los más altos tribunales españoles. La doctrina fue fruto, de un *status quo*, el español, en que los sectores políticos más reaccionarios controlan todos los resortes del poder y decidieron seguir administran-

do la llamada cuestión vasca desde códigos de represión y venganza.

ELA considera intolerables las declaraciones de los ministros españoles de Justicia y de Interior sobre esta sentencia. Sabedores de que llegarán nuevas condenas según se vayan estimando los recursos en Estrasburgo, el anuncio de una futura modificación del código penal profundiza en la antidemocrática práctica de legislar a partir de la generación artificial de alarma social desde la prensa adicta.

● La plantilla de Formica intensifica las movilizaciones en defensa del empleo y las condiciones de trabajo

Los miembros del comité de empresa de Formica han hecho público el calendario de movilizaciones a desarrollar a lo largo del mes de julio en defensa del empleo y las condiciones de trabajo de los trabajadores/as de la planta de Galdakao, después de que el

pasado 28 de junio la dirección comunicara la decisión de la multinacional de cerrar la citada planta. Entre otras movilizaciones, el comité ha convocado jornadas de huelga los días 12, 17, 19 y 24 de julio. Asimismo el 12 de julio se celebró una manifestación en Galdakao, entre la sede de la empresa y el ayuntamiento. Por su parte, el día 17 de julio, los trabajadores/as se concentrarán de 11 a 13 horas ante la sede del Gobierno Vasco en Bilbao; y el día 19, a la misma hora, ante la Diputación de Bizkaia.



Manu Robles-Arangiz Fundazioak UNED-Bergararekin elkarlanean antolatzen dituen udako ikastaroak uztailaren 4an eta 5ean egin ziren Donostian

"ZORRAREN ZATI HANDI BAT LEGEZ KANPOKOA DA ETA BERTAN BEHERA UTZI BEHARKO LITZATEKE"



Manu Robles-Arangiz Fundazioa Institutuak UNED-Bergararekin elkarlanean urtero antolatzen duen Udako Ikastaroa uztailaren 4an eta 5ean ospatu zen Euskal Herriko Unibertsitateak Donostian duen campusean. Aurtengo ekitaldiak bizi dugun abagunea izan zuen hizpide. Jardunaldiak bi atal ezberdin izan zituzten. Lehenengoan egungo egoeraren diagnosis egin zen. Bigarrenean krisitik atera ahal izateko alternatibak eta ekarpenak plazaratzeko ordua izan zen.

Zeregin horretan izen handiko bi lagunek hartu zuten parte. Lehenengoa **Eric Toussaint** belgikarra, eta, bigarrena Antonio Sanabria madrildarra. Hasiera batean Bibiana Medialdea zen etortzekoa, baina azkenean ezin izan zuen etorri arrazoi pertsonalak kausa. Uztailaren 4ko jardunaldiari hasiera emateko Eric Toussaintek txanda hartu zuen. *Europar Batasuneko gobernuek adostutako politikak. Txirrotze orokortua* izan zen bere ponentziaren izenburua. Egungo abagunea testuinguru historiko zehatz baten baitan kokatu nahi izan zuen. "Kapitalaren erasoaldi bete-betean gaude. Helburua Bigarren Mundu Gerraren ostean lortu zen Ongizate Estatuararekin eta gizarte eskubideekin amaitzea da. Kapitalari langile-jendea esplotatzeko erraztasun gehiago eman nahi dizkiote".

Toussaintek nabarmendu zuenez kapitalismoaren krisi sistemiko baten aurrean gaude. "Sistema bera da krisian dagoena, eta finantza-krisia krisi orokor horren adar bat da. Ezin dugu ahaztu krisiak beste adar batzuk ere badituela, batez ere elikadurarenak eta ekologikoak. Adar guzti horiek elkar lotuta daude. Gainera gauza bat aipatu nahiko nuke: elikagaien eta ekologiararen krisia gehien sufritzen ari diren horiek hegoaldeko herriak dira. Horiek aspaldi daude krisian, gose-teak, esaterako, aspaldidanik ezagutzen dituzte".

Arazoaren muinera jo zuen Toussaintek egungo abagunea aztertzeke orduan, eta gaur egun zorrak zergatik hartu duen horrenbesteko garrantzia aztertu zuen. "Kapitalismoak 90. hamarkadatik 2008. urtera arte nolabaiteko hazkunde maila lortzen joan zen, urtean %3koa gutxi gora behera. Reeganek

eta Thatcherrek 80. hamarkadan hasi zuten erasoaldi neoliberalak tartaren euren zatia handitzea lortu zuen, baina horrek ez zuen hazkunde eragotzi. Baten batek galdetuko du hori nola izan ote zen posible, eta erantzuna erraza da: hiperkontsumoa zen hazkunde ahalbidetzen zuena. Horretarako, noski, kredituak ezinbestekoak ziren, kreditu hipotekarioak zein kontsumorako kredituak. Zorpetzea ez zen soilik etxetan eman, finantza erakundeetan ere eman zen. Aberatsetan aberatsenak ere zorpetzen ziren, espekulatzeko. Orain arte azaldutakoak enpresetarako ere balio du. Irabaziak kontsumo produktuetan inbertitu ordez espekulatzeko erabili ziren, batez ere finantzetan produktu toxikoak deitutakoekin".

"Ameriketako Estatu Batuetan etxebizitza-sektoreko burbuila lehertu zenean guztia erortzen hasi zen. Eta, leherketa Europatik milaka kilometrotara gertatu bazen ere bete-betean eragin zigun. Urteetan zehar Europako bankuek izugarriko inbertsioak egin zituzten AEBtako etxebizitzaren sektorean, batez ere Europa iparraldeko bankuek. Beraz, milaka eta milaka milioi galdu zituzten banku pribatu horiek. Handik aurrera zer gertatu den begi-bistakoa da".

BADAUDE ALTERNATIBAK

Egoeraren larritasuna onartu arren, Toussaintek alternatibak egon badaudela nabarmendu zuen. Eta, hain zuzen, hori izan zen ikastaroen bigarren egunean sakondu nahi izan zuen ideia nagusia. Belgikako irakasle honek urteak daramatza zorra eta bere ondorioak aztertzen eta bere ondorioen aurka borrokatzen. "Zorraren zati handi bat ez da legezkoa eta, beraz, ez da zilegi hura ordaintzea. Horretarako zorraren kontu-ikuskaritza bat egitea proposatzen dugu. Estatuek duten zorraren parte bat, herrialdearen arabera ezberdina dena, legez kanpoko da, eta bertan behera uztea exijitzen dugu. Hori lortuta ez litzateke egungo krisia konponduko, agerikoa da hori, baina oso garrantzitsua izango litzateke krisiaren ondorioak sufritzen dituzten milioika herritarrentzat".

Antonio Sanabria irakasle madrildarraren parte-hartzea ere biziki interesgarria izan zen. Lehen egunean merkatua bezala ezagutzen dugun horren atzean zer dagoen argitzen saiatu zen. Bigarren egunean ere alternatibei buruz hitz egin zuen nagusiki. "Bi agertoki ikusten ditut soilik. Edo orain arteko politikekin jarraitzen dugu eta hondamendira goaz edo orain artekoa errotik aldatzen dugu. Eta bigarren hori lortzea borondate politiko kontu hutsa da. Neoliberalismoa izan da merkatuak desarautu dituen, egungo finantza-krisira heltzeko bidea zabaldu dituen. Beraz, merkatuak berriz ere arautzea borondate politiko kontu hutsa da. Borondate politikoa balego, zein arazo dago banku publiko indartsu bat sortu, espekulazioa helburu duten finantza mugimenduei zerga bat jarri edo kapitalaren irabazi itzelei eragingo dien bidezko zerga sistema bat ezartzeko?"

● ELA critica el doble discurso del Gobierno Vasco en materia de inmigración

Tras reiteradas declaraciones propagandísticas del Gobierno Vasco en las que anunciaba que no aplicaría en la CAPV la restricción a la sanidad para las personas inmigrantes sin papeles, finalmente ha aprobado el decreto 114/2012, que exige un año de empadronamiento a estas personas para poder acceder al servicio sanitario. Esta decisión demuestra, a juicio de ELA, la apuesta del Gobierno López por la política de recortes en un área tan fundamental como la sanidad, y refleja, una vez más, la falta de compromiso con las personas inmigrantes.

ELA considera que no existe ningún argumento para negar el derecho a la salud. Por ello, la decisión del Gobierno es rechazable desde cualquier principio ético y democrático, ya que atenta contra la cohesión social y la solidaridad más elemental.

● Movilizaciones contra los despidos en Hermanos Larráyo, de Ultzama

ELA denuncia que la carpintería Hermanos Larráyo de Ultzama se ha amparado en la nueva Reforma Laboral para despedir a otros 7 trabajadores/as de la forma más barata posible. Entre ellos se encuentra el delegado sindical de ELA y otros seis compañeros/as, algunos con más de 24 años de antigüedad. Tras conocerse los despidos hace unas semanas, las movilizaciones continúan todos los días.

Asimismo, la plantilla no descarta ir incrementando sus protestas y movilizaciones si la dirección de la empresa no cede en sus injustas pretensiones. Los trabajadores denuncian que los dueños de la empresa –los hermanos Larráyo y sus socios– han ganado mucho dinero a lo largo de los años gracias a su esfuerzo y al sudor de su frente y no creen justo ser despedidos y quedarse en el paro por una mísera cantidad de dinero, que además es subvencionada en un 40% por el Fogasa.

www.ela-sindikatua.org

ELA **astekaria**

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela-sindikatua.org

Franqueo concertado
nº 08/207